

## JUAN MARI ABURTO ALKATEAK BILBAOARTE ERAKUSKETA INAUGURATU DU, 2022AN BEKA-EGONALDI BAT EGIN DUTEN ARTISTEN LANEZ OSATUA

- **Bilboko Udalaren arte-produkziorako zentroak erakusketa honekin (urtero egiten da) agurtuko du urtea, 26 artistaren eta bi arte-kolektiboren lanekin.**
- **Artistez osatutako epaimahai batek hautatuko ditu 2023an bakarka erakusketa bat egitea merezi duten proposamenak.**
- **BilbaoArte zentroa, joandako hilabeteotan, bereziki saiatu da han bizi diren artisten komunitateari ematen dizkion zerbitzuak hobetzen, eta, gainera, berrikusi egin du BilbaoArteren eredia.**

(*Bilbo, 2022ko abenduaren 1a*).- **Juan Mari Aburto** Bilboko alkateak, **Gonzalo Olabarria** Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotziarekin eta **Javier Riaño** BilbaoArteren zuzendariarekin batera, **BilbaoArte Udalaren ekoizpen artistikorako zentroaren urteko erakusketa** inauguratu du, **zeinean aurten egoiliar izan diren artisten obra biltzen baita**. Inaugurazio ekitaldi honetan, Juan Mari Aburtok lan bakoitzaren lan-prozesua ezagutu ahal izan du, egileek eurek azalduta; zorionak eman dizkie artistei, eta jakitera eman die Udalak konpromisoa duela BilbaoArte produkziorako zentroak eskaintzen duen ereduari eusteko eta sendotzeko.

Udalaren arte-produkziorako zentroko aretoetan, aurten, **28 proposamen izango dira erakusgai jarrita, adin bateko eta besteko 28 artista garaikiderenak, bertako, Estatuko eta nazioarteko artistenak** (Mexiko, Uruguai eta Peru). Lanen artean ikusi ahalko dira **arte garaikidearen azken joeren eta lanerako modu eta prozesuen erakusgarri diren aleak**. Ateak irekita egongo dira jendearentzat abenduaren 2an, 5ean, 7an eta 9an, eta aukera izango dute aldeztatik hitzordua hartuta ibilaldi gidatuak egiteko.

Aurten parte hartu duten artistak hauek dira: **Maidier Aldasoro, Daniel Alegrete González, Leyre Arraiza, Art Builders Group, Iván Beltrán, Marta Beltrán, Javier Bravo De Rueda, Lu Chamorro, Maite Choya Robredo, Silvia Coppola, Mar Cubero, Gabriela Cuestas Gómez, Élan D'Orphium, Santiago Fernández Honrubia, Ada Garrués, Salva G. Ojeda, José Félix Glez. San Sebastián, Paula Guerrero & Bruno Delgado Ramo, Iratxe Hernández Simal, Manuela Inclán, Jimena Kato, Gala Knörr, Idoia Leache, Ara Méndez Murillo, Estela Miguel Bautista, Sofía Montenegro, Ventura A. Pérez eta Claudia Rebeca Lorenzo.**

**Abenduaren 9an, barikuan, jardunaldien atzenengo egunean, June Crespo, Aitor Ortiz eta Txaro Arrazola** artistek osatutako epaimahai bat ibiliko da aretoetan zehar, eta **2023an banakako erakusketa bat egitea merezi duten proiektuak** hautatuko dituzte. Haien erabakia gaur arratsaldean emango da jakitera jendaurrean, zentroan bertan, artisten aurrean.

## **ATZERA BEGIRAKO URTE BAT**

BilbaoArteren bidez, Udala, joandako atzenengo hilabeteotan, saiatu da **han bizi diren artisten komunitateari eskaintzen dizkion zerbitzuak hobetzen**. Lehenengo seihilekoan BilbaoArteren eredua berrikusteko lan-mahai batzuk eratu zirenetik, proiektu berriei ekin zaie, hala nola zentroaren eremuak berrantolatzea, Abandoibarreko egoitza handitzea edo *Otxar Open Gela* delakoan une jakinetan erabiltzeko estudio batzuk irekitzea.

Fundazioak **400 artista ingururekin emango dio** amaiera 2022ari; **haiei guztiei aukera eman die ekoizpen profesionalean aritzeko, laguntzaileekin**. Artista kopuru hori, bestalde, etengabe haziz joan da. BilbaoArteren jardueren programari dagokionez, **50 agente baino gehiago ekarri ditu artearen mundutik, ikastaroak, mintzaldiak, mintegiak eta hitzaldiak eskaintzera era bateko eta besteko gaien inguruan**. Guztira, 14 erakusketa ekoitzi ditu; 200 proiektzio baino gehiago programatu; sei hitzaldi eskaini, eta bederatzi formazio-programa eta sei emanaldi zuzenean; bestalde, bederatzi argitalpen produzitu ditu.

## **SARE SOZIALAK**

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

## EL ALCALDE JUAN MARI ABURTO INAUGURA LA EXPOSICIÓN DE BILBAOARTE QUE REÚNE LAS OBRAS DE LAS Y LOS ARTISTAS RESIDENTES EN 2022

- El Centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao despide este año con esta muestra colectiva formada por el trabajo de 26 artistas y dos colectivos artísticos.
- Un jurado compuesto por artistas elegirá las propuestas merecedoras de una exposición en solitario en 2023.
- Bilbao Arte en los últimos meses se ha centrado en mejorar sus servicios a la comunidad de artistas que la habita y se ha revisado el modelo de BilbaoArte.

*(Bilbao, a 1 de diciembre de 2022).*- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, acompañado del Concejal de Cultura y Gobernanza, **Gonzalo Olabarria**, y el Director de BilbaoArte, **Javier Riaño**, ha inaugurado la **exposición anual de la Fundación BilbaoArte, centro de producción artística municipal, que reúne la obra de las y los artistas residentes durante este año**. En este acto, el Alcalde ha podido conocer el proceso de trabajo de cada obra de mano de sus autores, a quienes ha dado su enhorabuena y ha trasladado el compromiso del Ayuntamiento de mantener y fortalecer el modelo que implica ese centro de producción que es BilbaoArte.

Las salas del centro de arte municipal albergarán estos días **28 propuestas de artistas contemporáneos de diversas edades y procedencias tanto locales y estatales como internacionales** (México, Uruguay y Perú). A través de estos trabajos se podrá observar una **muestra representativa de las últimas tendencias, modos y procesos de trabajo del arte contemporáneo**. Las puertas estarán abiertas a la ciudadanía las tardes de los días 2, 5, 7 y 9, con posibilidad de participar en recorridos guiados bajo cita previa.

Los y las artistas participantes este año son: **Maider Aldasoro, Daniel Alegrete González, Leyre Arraiza, Art Builders Group, Iván Beltrán, Marta Beltrán, Javier Bravo De Rueda, Lu Chamorro, Maite Choya Robredo, Silvia Coppola, Mar Cubero, Gabriela Cuestas Gómez, Élan D'Orphium, Santiago Fernández Honrubia, Ada Garrués, Salva G. Ojeda, José Félix Glez. San Sebastián, Paula Guerrero & Bruno Delgado Ramo, Iratxe Hernández Simal, Manuela Inclán, Jimena Kato, Gala Knörr, Idoia Leache, Ara Méndez Murillo, Estela Miguel Bautista, Sofía Montenegro, Ventura A. Pérez y Claudia Rebeca Lorenzo**.

El **viernes 9 de diciembre**, último día de las jornadas, un jurado compuesto por las artistas **June Crespo, Aitor Ortiz y Txaro Arrazola** recorrerá los espacios y elegirá los **proyectos merecedores de una exposición individual durante el año 2023**. Su decisión se anunciará públicamente esa misma tarde en el centro ante los artistas.

## UN AÑO EN RETROSPECTIVA

A través de Bilbao Arte, el Ayuntamiento se ha dedicado los últimos meses a centrar sus esfuerzos en **mejorar sus servicios a la comunidad de artistas que la habita**. Desde que se celebraron unas mesas de trabajo en el primer semestre para revisar el modelo de BilbaoArte, se han emprendido proyectos como la redistribución del centro, la ampliación de la sede a Abandoibarra o la apertura de unos estudios de uso puntual en la *Otxar Open Gela*.

La Fundación cierra 2022 con **cerca de 400 artistas a los que ha posibilitado una producción profesional y asistida**, una cifra que no ha dejado de crecer. En cuanto al programa de actividades, BilbaoArte ha traído al centro a **más de 50 agentes del mundo del arte para impartir cursos, conferencias, seminarios y charlas abordando diferentes temas**. Ha producido un total de 14 exposiciones; proyectado más de 200 proyecciones; acogido seis charlas, nueve programas formativos y seis actuaciones en directo; y producido nueve publicaciones.

## REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)